

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Junkal Perez Lizarralde

*Arrasate,
Gipuzkoa
(1967)*

Aurkibidea



Biografia



Arrasatekoa, kaletarra, gurasoak ere kaletarrak (ama Legazpikoa). Ikastolan ikasitakoa da. Arrasateko hitanoari buruzko elkarrizketa egin diogu, Esther Learretarekin batera. Junkalen hitanoa ez du etxean jaso; koadrilako bi lagunekin ikasi zuen hika egiten, 17-18 urte zituenean. Auto tailer batean egiten du lana eta batzuetan bezeroekin hika egiten du. Etxean ez du transmititu.

Zintak

ARR-204

- **Proiektua:** Arrasaten hika
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2024-06-12
- **Iraupena:** 85 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Sapsootham, Itziar

Pasarteak

1. Hika norekin egiten dute

- **Erref:** ARR-204/001
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Hika norekin egiten duten. Gazteek ez dute ikasi eta inbidiaz begiratzen diete.

2. 17 urterekin ikasi zuen hitanoz hitz egiten

- **Erref:** ARR-204/004
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:03:55. **Bukatu:** 00:06:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Juncalek kalean ikasi zuen hikaz, kuadrilako beste bik haien artean egiten zutelako. Kuadrilako guztiak dira euskaldunak, baina beraiek bakarrik egiten zuten hikaz.

3. Arrasateko hitanoaren egoera

- **Erref:** ARR-204/006
- **Iraupena:** 0:00:39. **Hasi:** 00:08:23. **Bukatu:** 00:09:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Kalean ez da asko entzuten, baina ikastaroak antolatzen dira eta jende asko apuntatzen da.

4. Alabek amari hika egitea?

- **Erref:** ARR-204/011
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:16:29. **Bukatu:** 00:18:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Gaztetan, amarekin joaten zen etxez-etxe barazkiak saltzera, eta atentzioa deitzen zion baserri bateko alabek haien amari hika egiten ziotelako. Arraroa egiten zaio gaur egun ere, baina Juncali ez.

5. Noka eta toka ez da ondo erabiltzen

- **Erref:** ARR-204/013
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:18:35. **Bukatu:** 00:20:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Hitanoz hitz egitearen inguruan entzun dituzten iritziez hitz egiten dute. Jende askok ez daki noka eta toka ezberdintzen. Gizonezkoei gehiago entzuten zaio hitanoz.

6. Euskara gutxi entzuten da Arrasaten

- **Erref:** ARR-204/014
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:20:29. **Bukatu:** 00:21:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Oso gazte gutxik erabiltzen dute hitanoa eta euskararen erabileraren arazoarekin lotuta dago.

7. Arrasateko euskalkia ezin ulertu Legazpian

- **Erref:** ARR-204/019
- **Iraupena:** 0:02:57. **Hasi:** 00:27:20. **Bukatu:** 00:30:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Alaberi batzuetan hika egiten diete, baina ez da zerbait naturala. Biek ikastolan ikasi dute. Hasiera batean, irakasle gehienak ez ziren herrikoak. Euskara batuari garrantzi handiagoa ematen zitzaion. Juncalek gogoratzen du, umetan Legazpira joaten zenean, bertako haurrek ez ziotela ulertzen, euskalkian hitz egiten zuelako.

8. Euskalkien aberastasuna

- **Erref:** ARR-204/020
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:30:17. **Bukatu:** 00:32:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Euskalkiek, herri-nortasuna eta aberastasuna ematen dute. Etxean eta kalean transmititzen da euskalkia.

9. Gaztelaniaz hitz egiteko sasoi bat izan zuten

- **Erref:** ARR-204/021
- **Iraupena:** 0:03:21. **Hasi:** 00:32:29. **Bukatu:** 00:35:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Gaur egun, euskaldunak diren gazteek gaztelaniaz egiten dute haien artean. Garai batean, denek izaten zuten gaztelaniaz hitz egiteko sasoi bat, baina azkar bueltatzen ziren euskarara.

10. Gizonezkoek hitanoz emakumeak baino gehiago

- **Erref:** ARR-204/027
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:39:50. **Bukatu:** 00:43:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Emakumeen artean hika gutxiago egiten da eta horren arrazoiak zeintzuk izan daitezkeen pentsatzen dute. Garai batean, sozialitzatzeko modua ezberdina zen, eta emakumeak etxe barruan gehiago harremantzen ziren. Frankismo garaian, emakumeek gaztelania gehiago erabiltzen zuten eta hori ere izan daiteke hitanoaren galeraren arrazoi bat.

11. Euskalkia eskolan erakutsi beharko litzake

- **Erref:** ARR-204/029
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 00:45:49. **Bukatu:** 00:48:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Ikastolan, hika batuko aditzak ikasi zituzten. Gaur egun, eskola batzuetan ez dira hikako aditzak ikasten, ez eta ikusten. Herriko hizkera eta herriko hitanoa erakutsi biharko litzake.

12. Hitanoa erabilera faltagatik galtzen da

- **Erref:** ARR-204/030
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:48:43. **Bukatu:** 00:50:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Hitanoa sustatzeko ikastaroak egiten badira baina gero ez bada erabiltzen, alperrikakoa da. Berdina pasatzen da euskararen erabilerarekin.

13. Aditz formalen eta hizkeran arteko ezberdintasuna

- **Erref:** ARR-204/035
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:55:07. **Bukatu:** 00:56:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Aditz tauletan agertzen dena eta hitz egiteko modua oso ezberdina da.

14. Mugikorrik gabeko garaiak

- **Erref:** ARR-204/038
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:59:18. **Bukatu:** 01:01:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Teknologia berriak eta sare sozialak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

Laburpena:

Mugikorrik erabiltzen ez ziren garaiari buruz hitz egiten dute. Lehenengo mugikorrik nolakoak ziren. Unibertsitate inguruko telefono-kabinetan ilarak egoten ziren telefonoz deitzeko.

15. Bizitzan ez dute ezer faltan bota izan

- **Erref:** ARR-204/039
- **Iraupena:** 0:03:57. **Hasi:** 01:01:44. **Bukatu:** 01:05:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Garai bateko eta gaur egungo emakumearen bizimodua nola aldatu den. Haien amekin alderatuta, ondo bizi izan direla uste dute. Askatasun gehiago izan dute, etxetik kanpo lan egin dute... Juncalen etxean, umetan, etxeko zereginak egiten zituzten guztiek, mutilek eta neskek. Ez dute ezer faltan bota izan.

16. Ikastolako oroitzapenak

- **Erref:** ARR-204/040
- **Iraupena:** 0:04:04. **Hasi:** 01:05:41. **Bukatu:** 01:09:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Ikastolako lagunen artean, beti dago norbait guztiaz gogoratzen dena. Ikastolan askatasun gehiago zutela uste dute. Erlijioa irakaslea gogoratzen dute.

17. Baserria izatearen abantailak

- **Erref:** ARR-204/042
- **Iraupena:** 0:03:13. **Hasi:** 01:11:34. **Bukatu:** 01:14:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Koronabirusa

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Baserriko bizimodua beti izan da gogorra, batez ere animaliak izanda. Juncalen ustez, joera bat ikusten ari da baserrira bueltatzeko. Estherrentzat, askotan baserri mundua idealizatu egiten da. Umetan, oporraldiak baserrian apsatzen zituzten hango lanak egiten. Koronabirusaren garaian, jende askok eskertu zuen baserrian bizi ahal izatea.

18. Baserri mundua arriskuan?

- **Erref:** ARR-204/043
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 01:14:47. **Bukatu:** 01:17:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Baserri mundua arriskuan dagoen edo ez eztabaidatzen dute. Baserri bat konpontzea eta produkzio bat aurrera eramatea, oso garestia da. Juncalek, inguruko baserritarren artean lanak banatzen dituen auzo bati buruz hitz egiten du.

19. Militantzia lehen eta orain

- **Erref:** ARR-204/045
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 01:17:24. **Bukatu:** 01:19:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak

Laburpena:

Gaur egungo militantzia eta garai batekoa, oso ezberdina da. Konpromezu-maila asko murriztu da.

20. Gaur egungo umeen jolasak

- **Erref:** ARR-204/047
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 01:19:55. **Bukatu:** 01:22:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Garai bateko eta gaur egungo umetako jolasak guztiz ezberdinak dira. Umeak zirenean, kalean jolasten zuten baina gaur egun dena kotxez beteta dago eta ezinezkoa da. Umetan jolasten zituzten jokuak ez dira ikusten gaur egun (goma, sokasaltoan...). Askotan umeak mugikorrarekin ere ikusten dira.

21. Patinetean eskolara

- **Erref:** ARR-204/048
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 01:22:33. **Bukatu:** 01:23:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk

Laburpena:

Umeak taldean joaten dira eskolara, patinetearekin.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-07-20

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com